



ALDEZ AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA, HONAKO FORU DEKRETU HAU ALDATZEKO FORU AGINDUARI BURUZKOA: 80/2019 FORU DEKRETUA, UZTAILAREN 3KOA, NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO IKASTETXE PUBLIKOEN SAREA BERRANTOLATZEN DUENA

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Foru-sektore Publiko Instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 133. artikulua xedatzen duenez, lege aurreproiektu bat edo erregelamendu proiektu bat egin aurretik, kontsulta publiko bat sustatzen ahalko da lege aurreproiektuetarako, eta ezinbestean sustatuko da erregelamendu proiektuetarako, Nafarroako Gobernu Irekiaren Atariaren bitartez; eta bertan jasoko da zer iritzi duten arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektu eta ordezkariak handieneko erakundeek puntu hauei buruz:

- a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- b) Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Aukeran dauden beste alternatiba batzuk (arauemaileak eta arauemaile ez direnak).

Bestalde, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legeak 21. artikuluan ezartzen duenez, Nafarroako administrazio publikoek argitara eman behar dituzte kontsulta publikoak, foru legeen aurreproiektuak eta erregelamenduen proiektuak egin aurretik planteatutakoak.

A) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.

Zenbait estamentuk planteaturiko eskakizunei erantzutea, eta Hezkuntza Departamentuak eskaturik berrantolaketa eta aldaketak egitea ikastetxeen eta hezkuntza lerroen eta unitateen atxikipenean.

B) Arauaren helburuak

Foru aginduaren helburu nagusia izanen da uztailaren 3ko 80/2019 Foru Dekretua aldatzea, zenbait estamentuk egindako eskariei erantzun ahal izateko. Halaber, Hezkuntza Departamentuak berak eskaturik, berrantolaketa eta aldaketak egitea ikastetxeen eta hezkuntza lerro eta unitateen atxikipenean.

C) Aukeran dauden beste konponbide batzuk (arauemaileak eta arauemaile ez direnak)

Horretarako konponbidea da foru agindu bat garatzea, uztailaren 3ko 80/2019 Foru Dekretuaren eranskina aldatzea ahalbidetuko duena (foru dekretu horren bidez Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoen sarea berrantolatu zen).